

2024KO URTARRILAREN 19A

begoñazpi astekaria



begoñazpi
ikastola

III EBI STEAM AZOKA

PENTSAMENDU

**LOGIKO-
MATEMATIKOA**



Iraia Iturregik
Batxilergoko
ikasleak
erakarri dauz




Haur Hezkuntzako umeeke xake erakustaldia emon dabe EBI STEAM Azokan

Aurten Ortuellan izan dan EBI STEAM Azokan, Elizbarrutiko Ikastetxeak sarearen azoka zientifiko eta artistikoan izan dogun erronka nagusia, xakea eta pentsamendu logiko-matematikoa izan da. Horren adierazgarri doguz Haur Hezkuntzako umeeke taula erraldoi batean praktikan jarri dabezan hainbat partida. Dakizuenez, Begoñazpi Ikastola aitzindaria da ikasgeletan xakea txertatzen. Lau urteko umeeke olgau, disfrutau eta ikasi egiten dabe. Guztiz murgilduta doguz.



Iraia Iturregik Batxilergoko ikasleak erakarri dauz

Iraia Iturregi entrenatzaile eta futbolari ohiak, zemendian, Begoñazpi Ikastolako Gazte Role Model Saria jaso eban. Orain, gure testigantza-programaren barruan, Batxilergoko ikasleak egon da. Bere hitzek oihartzun eta eragin handia izan dabe neska-mutilengan. "Ezer ez da ezinezkoa" esan deutse. Ahaleginaz, gaingintzeaz, sakrifizioaz eta diziplinaz hitz egin deutse baita ilusioaz eta ametsak betetzeaz be. Zalantzarik gabe, adibide bikaina gaur egungo gazteentzat. Eskerrik asko, Iraia!



'Ametsak' bolatxo morea lortu dau: baloreak ezinbestoak dira

Begoñazpi Ikastolan, ezinbestekoak dira laguntasuna, eskuzabaltasuna, kideekiko lankidetzeta... Ametsak, pixkanaka-pixkanaka, bere ametsak egia bihurtzen dauazala kontau deusku. Oraingoan, bolatxo morea erdietsi dau.

